



EKONOMIA

2023



B

K

erlo



U
K
H

U
N
T

Z
H



08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen digital multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea eta marka irudia



Atari digitalak

06



Diseinu lanak



Telebista

**MARKETIN eta
KOMUNIKAZIO
ZERBITZUAK**

05



Webguneak eta marketin digitala

04



Edukien sorkuntza

03



Komunikazio kanpainak

02



Estrategia eta planifikazioa

B

K

erto



KH

nu

ZH

Argitaratzailea:
Urolako Komunikazio Taldea

Helbidea:
Soreasu 1
AZPEITIA
943-81 38 41
943-89 00 17
urolakosta@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK

4-7

Sarrera

8-9

Iraurgi Berritzen

10-11

Urola Kostako Udal Elkartea

12-14

Datuak

15

Azkoitiko Udala

16-17

Azpeitiko Udala

18-21

Elkarrizketa: Unai Andueza

22-23

Alberdi Mekanizatuak

24-25

UKT

26-27

Gipuzkoako Foru Aldundia

28-33

Erreportajea: Lehiakortasuna eta ongizatea eskualdean

34-35

Urteak emandakoa



BASATXERRI

EUSKO LABEL

Baserriko Txerria
Cerdo de Caserío

Un producto · **BASATXERRI** · produktu bat

Basatxerri 2004 S.L. www.basatxerri.com Tfnoa: 699 09 61 61

ALDAKETAREN AROA



1986an, AEBetako Matematikako Irakasleen Kontseiluak urteroko bilera egin zuen Washingtonen (AEB), kalkulagailua eskolako maila guztietan erabiltzeko gomendioa luzatu berritan. Kongresuaren kanpoaldean elkarretaratzea egin zuten hogeit hamar irakasleek, kalkulagailuaren erabilera goiztiarraren aurka. "Kalkulagailurik ez, Lehen Hezkuntzan burmuina ongi entrenatu arte" zioten pankartak irakur zitezkeen manifestazio hartan. Ezjakintasuna eta beldurra ziren nagusi manifestari haien aurpegietan: batetik, beren lana galtzeko arriskua ikusten zutelako; eta bestetik, ikasleen eskura zegoen makina batek kalkuluak beraiek baino hobeto egin ahal izateak izua sorrarazten zuelako. Sorkuntza hark gizartean aldaketa handia ekarriko zuela ohartuta zeuden ordurako. .

La 40 urte igaro dira ordutik, eta egun, inor gutxik dio beldurrik kalkulagailuari. Are gehiago, kalterik eragiten ez duen gailua dela esan genezake. Ikasi egin dugu gailu horrekin bizitzen, aldaketa hori ere gizartean txertatzen. Psikologoek diote aldaketak ezjakintasuna sortzen duela, eta ezezaguna denak kezka eragiten duela. Hori kontuan izanda, egoera berrirako trantsizioa pixkanaka egitea litzateke hoberena, aldaketak eragin negatiborik izan ez dezan.

Gisa horretako aldaketak ez dira berriak. 1811. urtean, Britainia Handian izan zen Industria Iraultzan ere makina berriak ezarri zituzten, ordura arteko lan egiteko moduak hankaz gora jarriz. Eta lehenago, 1500. urtearen inguruan, Johannes Gutenbergen inprentaren asmakuntzarekin ere gauza bera gertatu zen. Baina lortu zuten aldaketa horietara ere ohitzea.

Ezin da ukatu aldaketaren aroan bizi garenik, gaur egun ere uneoro erronka berriak ezartzen baitizkigu gizarteak. Azken aldaketa horietara egokitzen dihardugu, sektore guztietan, baita enpresetan ere. Urola Kostako eskualdearen kasuan ere, Azkoititik hasi eta Orioraino eraldaketa ekonomikoa ari da gauzatzen, gizartean bizi ditugun azken hiru trantsizio nagusiei lotuta: digitalizazioa, klima aldaketa eta soziala.

Eskuartean duzun ekonomia gehigarri honetan, eraldaketa ekonomikoari lotuta gure eskualdeko enpresek dituzten erronkez, aldaketetz, aukerez eta kezkez hausnartzeko tarte eskaini nahi dizuegu, guztiongan eragina izango dutelako. Kalkulagailuarengan sinesmen osoa zuten irakasle haien bozeramaileak esan zuen bezala: "Gizarte moderno batean tresna modernoak behar dira eta horretara moldatzen jakin behar dugu, guztion onerako". ■

bertako
igogailuak | ascensores

Benetako orotoriko zerbitzua


100€-tik/hileko



Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzera

+2.000 bezerok gudan dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus



LEHIAKORTASUN JASANGARRI BATERAKO TRANTSIZIOAN

Urola Kostako eskualdean, hiru trantsizio unetan aurkitzen dira enpresak egun: trantsizio digitalean, energetiko-ekologikoan eta sozioekonomikoan. Bide horretan, proiektu eraldatzaile eta berritzaileak jarri dituzte martxan Urola Kostako Udal Elkartearen eta Iraurgi Berritzen garapen agentziaren laguntzarekin.

TRANSIZIO DIGITALA

Iraurgi Berritzenek eta Urola Kostako Udal Elkarteak digitalizatorako jauzia egiteko laguntza eskaintzen diete eskualdeko enpresei, egungo merkatu globalizatuan lehiatzeko gaitasun handiagoa izan dezaten.

Digitalizatorako erronkak:

- Enpresei beren beharretarako egokitutako teknologia egokia ezartzea.
- Zibersegurtasuna bermatzea.
- Digitalizazioaren aldeko kultura sustatzea.
- Digitalizatorako inbertsioak finantzatzeko erraztasunak eskaintzea.
- Aldaketetara moldatzen laguntzea.
- ...



TRANSIZIO ENERGETIKO-EKOLOGIKOA

Energia eraginkortasunari, klima aldaketaren aurkako borrokari eta ekonomia zirkularren sustapenari lotuta, programa bat baino gehiago jarri dituzte martxan eskualdeko enpresetan.

Ingurumenari lotutako erronkak:

- Jasangarritasuna sustatzea.
- Deskarbonizazioa.
- Bertako lehengaien erabilera sustatzea.
- ...



TRANSIZIO SOZIOEKONOMIKOA

Egungo gizartearen aniztasuna gero eta handiagoa denez, aniztasuna da gizartearen garapenerako faktore erabakigarrienetako bat. Hori horrela, Urola Kostako enpresa txikietan eta ertainetan ere pertsonen kudeaketan eraldaketa gauzatzen ari dira. Alde batetik, talentuari lotuta dihardute lanean; eta bestetik, enplegu inklusi-boaren alde.

Pertsoneri lotutako erronkak:

- Kalitatezko enplegua sortzea.
- Langileei egonkortasuna eskaintzea.
- Genero arrakala txikitzea.
- Aniztasuna sustatzea.
- ... ■



IRAURGI BERRITZEN

UROLA ERDIKO INDUSTRIA ENPRESAK LEHIAKORTASUN JASANGARRI BATERAKO TRANTSIZIOAN



Begoña
Beobide
IB zuzendaria

«Urola Erdiko industria enpresak, lehiakortasun jasangarri baterako bidean, trantsizio fasean dira hiru lan eremutan, eta proiektu eraldatzaileen eta berritzaileen bitartez ari dira hori gauzatzen.»

71 / enpresa parte hartzaile

TRANTSIZIO DIGITALA TRANTSIZIO ENERGETIKO-EKOLOGIKOA TRANTSIZIO SOZIOEKONOMIKOA

Proiektu hauek gauzatzeko ezinbestekoa izan da Azpeitiko eta Azkoitiko udalen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lhoberen babes ekonomikoa.

TRANTSIZIO DIGITALA

UROLA ERDIKO ENPRESETAN ERALDAKETA DIGITALA BULTZATZEN



- **Iraurgi Berritzenek, Urola Erdiko enpresa txikien eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko, eraldaketa digitala bultzatzen laguntzeko hainbat proiektu jarri ditu abian.** Proiektu horiek digitalizatorako palanka izan nahi dute, eskualdeko enpresen lehiakortasuna garatzeko xedearekin.
- **Enpresa bakoitzak aukera izan du digitalizazioak ekar diezazkiokkeen negozio aukera berriak eta barne efizientzian hobekuntzak identifikatzeko, lehenesteko, eta jarraian, eraldaketa digitalerako plana zehazteko.**
- **Digitalizazio Ikasketa Lantaldea osatu da eskualdeko enpresetako IKT arduradunekin.** Enpresa bakoitzaren esperientziatik haratago, beste enpresek beraien esperientzietatik ateratako ikasketak partekatu dira eta, bide batez, proiektu berrien aukerak biderkatu dira.

Proiektu adibideak:

- Produktzio prozesuen digitalizazioa, eragin-kortasuna hobetzeko.
- Datuen gobernantzaren kudeaketa integrala.
- Bezeroen ataria eta serbituzazioa.
- Teknologia berrien aplikazioen ebaluazioa.
- Trazabilitatearen digitalizazioa.
- IT Kudeaketa Sistema eta bezeroaren kanalen integrazioa.

TRANSIZIO ENERGETIKO-EKOLOGIKOA

UROLA ERDIKO ETE-ETAN EKONOMIA ZIRKULARRA ETA ENERGIA EFIZIENTZIA SUSTATZEN



- **Ekonomia zirkularra enpresan.** Proiektu honen helburu nagusiak izan dira Urola Erdiko makineria eta ekipamendu arloko ETEetan ekonomia zirkularri lotutako aukerak eta merkatu nitxo berriak identifikatzea, baloratzea eta lehenestea, eta aukera horiek bultzatzeko enpresako ekintza planak sortu dira.
- **Enpresen energia efizientzia, autokontsumoa eta energia berriztagarriak.** Proiektu hau ekintzara bideratutako formakuntza prozesuaren metodologiaren bidez landu da, enpresen behar amankomunen arabera antolatuta. Proiektuan, enpresa bakoitzarekin ekintza plan bat lantzeaz gain, energiari lotutako gai zehatzei bideratutako prestakuntza saio bateratuak egin dira.

Proiektu adibideak:

- Enpresen energia diagnostiko energetikoa egin eta autodiagnostikoa egiteko gaitasunen garapena.
- Energia fakturaren optimizazioa.
- Energiaren kudeaketarako eta etengabeko hobekuntzarako baliabideak.
- Plaka fotoboltaikoen aukerak.
- Kontratazio energetikoaren gakoak.
- Ekoizpena prozesuen energia efizientiaren balorazioa.
- Auto elektrikoek aukerak industrian.

TRANSIZIO SOZIOEKONOMIKOA

UROLA ERDIKO ETE-ETAN PERTSONEN KUDEAKETAN ERALDAKETA



- **Enpresetan pertsonen talentua kudeatzeko eraldaketa eta berrikuntza.** Proiektu honetan, enpresen arduradunek eredu berrien ezagutza eta praktikak trukatzeko parte hartu dute, eta enpresa bakoitzak proiektu bana garatu dute. Enpresetako Pertsonen Arduradunen Lantaldeak sortu da, ikasketa kolektiboak partekatuzko.
- **Eskualdeko talentua erakarri bertan lan egiteko.** Eskualdeko herritarren eta enpresen lan aukerak bateratzeko Urolanprest estrategia indartu da, eta horri esker, 107 lagun laneratu dira azken urtean.
- **Enplegu inklusiboa.** Zaurgarritasun egoeran dauden herritarren laneratzeko eta gizarteratzeko prestakuntza ibilbideak gauzatu dira eskualdean azken bi urteetan, eta lanerako aukerak eskaintzen dituzten bederatzik ikastaro bereziak antolatu dira. 102 lagunek parte hartu dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren ElkarEkin estrategiaren baitan kokatzen den proiektuan.

Proiektu adibideak:

- Enpresetan pertsonen fidelizazioaren gakoak.
- Pertsonen prestakuntza eta garapena.
- UrolanPrest. Eskualdeko lan eta prestakuntza eskaintzaren hedapena eta bitartekaritza. Zaurgarritasun egoeran dauden herritarrentzat ibilbideak laneratzeko eta gizarteratzeko.
- Enpresentzat sentsibilizaziorako eta praktika onen inguruko jardunaldiak hainbat kudeaketa eremutan aurrerapausoak egiteko: berdintasuna, arduraren soziala, nazioartekotzea, kudeaketa ereduak. ■

327
lan eskaintza kudeatu

107
herritar laneratu

9
prestakuntza ikastaro langabe zaurgarrientzat

102
parte hartzaile

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA TRANSIZIO BIDEAN ESKUALDEKO ENPRESEI LAGUNTZEN ARI GARA

**TRANSIZIO
ENERGETIKO-EKOLOGIKOA**
UROLA KOSTAKO ENERGIA
NAHIZ KLIMA ALDAKETAREN PLANA



1. BISITAK. 2023an, enpresetan zerbitzu nahiz industria sektorean efizientzia energetikoari aurre egiteko neurri zehatzak plazaratzeko bisitak egin ditugu.

2. INFORMAZIO GUNEA WEGUNEAN. Energia alorreko informazio gunea webgunean izateko lanean ari gara.

3. INTERREG EUROPE. Europako beste herrialdeekin elkarlanean, Interreg Europe eskaera aurkeztu dugu eta ebazpena urte amaieran izatea aurreikusten dugu. Egitasmo horren baitan, beste herrialdeetan efizientzia energetikoaren alorrean egiten ari diren urratsak ezagutzeko eta elkar partekatzeo aukera izango dugu.

4. ENERGIA MAHAIK.

- **Irailean** energia mahai publikoko bi bilera egin ditugu. Mahai horren helburua da jasangarritasun energetikoaren esparruan ekimen publikoen arteko koordinazioa sustatzea eta administrazio eredugarri bat izateko lan egitea.
- **Urriaren hasieran** Urola Kostako energiaren eta klimaren lehen mahai publiko-pribatua antolatu dugu. Bertan, eskualdeko eragile pribatuek, EEEK, lhobek eta Urkomeko ordezkariak ez ezik, neurri eta jarduera ezberdinetako eskualdeko enpresek eta hezkuntza zentroek parte hartu dute. 2024-2026 epean eraginkortasun energetikoa nahiz energia berriztagarriak bultzatzeko beharrak eta lehentasunak definitu nahi ditugu, erregai fosilekiko menpekotasuna gutxitzeko eta garapen iraunkorrari dagokionez urrats sendo bat egiteko.
- **Hurrengo urteetan** energia mahaietan plazaratutako lehentasunei helduko diegu. Batez ere, efizientzia energetikoa, energia berriztagarriak eta mugikortasuna bultzatzeko eta klima aldaketari aurre egiteko lan larrietan lanean jarraituko dugu.

TRANTSIZIO SOZIOEKONOMIKOA

INDUSTRIA, GENERO IKUSPEGIARI
BEGIRA ETA ESPAZIOAK BIZIBERRITZEN



Denontzako industrialdeak eraitzeko egitasmo parte hartzailea.



International Labour Organization-ILO (2021) erakundeak argitaratutako datuen arabera, emakumeak populazio aktiboaren %47 badira ere, proportzio hori ez da mantentzen industria sektoreko lanpostuetan. Izan ere, sektore horretan lan egiten dutenen %20 soilik dira emakumeak. Eskualdean manufaktura aurreratu eta digital eredu berrirantz jo nahi bada, oraindik ere ustiatu gabeko emakumeen potentzialaren beharra dago.

Emakumeek industria alorrean duten presentzia areagotzeko egitasmo parte hartzaile honen helburua da eskualdeko industrialdeetan bereziki emakume langileen segurtasuna bermatzeko ekintzak eta neurri zuzentzaileak identifikatzea eta ezartzea, genero ikuspegia ardatz hartuta.

Esparru horretan, Udal Elkarteak hiru ardatz nagusi identifikatu ditu:

1. **BALDINTZAK**, industria emakumeentzat erakargarri egiteko.
2. **IKUSGARRITASUNA**, industria jardueraren datu eta argitalpenen bidez, generoaren arabera berezita.
3. **ERREFERENTEAK**, industrian emakume profesional erreferenteak izateko.

Urola Kostan pabilioi hutsak negozio bilakatu.

Egitasmo honen bidez, eskualdean enpresa sare sendoa sustatzeko eta errotzeko urratsak eman nahi dira. Enpresa berriak –edo lehendik daudenen hazkundea– kokatzeko erabilgarri dauden lursail, pabilioi eta lokalei buruzko informazio eguneratua eskuragarri jarri nahi da eta inbertsiogile eta jabeen arteko dinamikak sortzeko lan eskema definitu nahi da.

TRANTSIZIO DIGITALA

UROLA KOSTAKO ERALDAKETA
TEKNOLOGIKO-DIGITALA



HIRU ARRAKALA DIGITAL eta HIRU ILDO NAGUSI

Bereziki hiru arrakala digital motaren inguruan lanean ari gara eskualdean:

1. **Erabilera** eten digitala, teknologia digitalekin dugun trebetasunari eta erabilerari lotutakoa.
2. **Belaunaldien** arteko eten digitala.
3. **Generoaren** eten digitala.

Hiru arrakala mota horiei erantzuna emateko, digitalizazioari lotutako hiru ildo nagusi lantzen ari gara:

1. **AZPIEGITUREN GARAPENA.** Zerbitzu eta teknologia digitaletara sarbidea errazteko azpiegitura egokien garapena: laborategi teknologikoa eta *coworking* espazioa.
2. **AHALDUNTZE DIGITALA.** Enpresei zuzendutako ahalduntze digitalerako programak garatzea: datuen kudeaketa, negozio digital berrien merkaturatzea, segurtasun digitala, 4.0 industria eta abar.
3. **DIRULAGUNTZAK.** Enpresen digitalizatorako dirulaguntzak, kalitatezko euskarri teknikoak ezartzeko. ■



**UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA**

📞 **943-89 08 08**

📍 **Urdaneta Bidea 6, Zarautz**

✉ **harrera@urolakosta.eus**

🌐 **www.urolakosta.eus**

UROLA KOSTA ETA UROLA ERDIA DATUTAN

Biztanleriaren bilakaera Urola kostea / Urola erdia + Gipuzkoa / EAE

LURRALDEA	2008	2010	2013	2016	2019	2022
AIA	1.854	2.007	2.038	2.046	2.054	2.094
GETARIA	2.585	2.675	2.686	2.818	2.821	2.825
ORIO	4.969	5.147	5.524	5.851	6.022	6.062
ZARAUZ	22.474	22.658	22.760	23.117	23.323	23.101
ZUMAIA	9.099	9.337	9.626	9.840	10.098	10.153
UROLA KOSTA	40.981	41.824	42.634	43.672	44.318	44.235
AIZARNAZABAL	653	708	770	775	772	774
AZKOITIA	11.091	11.351	11.463	11.587	11.633	11.617
AZPEITIA	14.157	14.305	14.509	14.666	14.936	15.154
BEIZAMA	180	183	170	166	143	136
ERREZIL	624	616	606	599	585	565
ZESTOA	3.426	3.544	3.650	3.734	3.711	3.750
UROLA ERDIA	30.131	30.597	31.217	31.488	31.637	32.134
GIPUZKOA	701.056	707.263	713.818	717.832	723.576	724.418
EAE	2.157.112	2.178.339	2.191.682	2.189.534	2.207.776	2.208.174

ITURRIA: Garapen hiri behatokia, 2022ko datuak

Langabeziaren bilakaera

LURRALDEA	2008	2010	2013	2015	2016	2019	2022
AIZARNAZABAL	23	56	70	51	48	38	34
AZKOITIA	315	613	814	768	683	484	460
AZPEITIA	395	717	1.091	924	791	555	547
BEIZAMA	3	3	8	7	9	5	5
ERREZIL	15	24	40	31	26	19	20
ZESTOA	110	173	239	236	213	146	154
UROLA ERDIA	862	1.586	2.262	2.017	1.770	1.247	1.220
AIA	49	89	98	81	73	54	57
GETARIA	57	88	110	100	82	76	86
ORIO	144	248	318	304	270	219	216
ZARAUZ	693	1.176	1.462	1.233	1.078	791	782
ZUMAIA	297	554	624	582	521	366	350
UROLA KOSTA	1.240	2.155	2.612	2.300	2.024	1.506	1.491
GIPUZKOA	25.603	39.586	49.148	44.018	39.676	30.381	29.907
EAE	84.582	132.358	175.415	160.155	146.003	115.507	113.273

ITURRIA: Garapen Hiri Behatokian jasotako datuak. Urtez-urteko datuak hilabeteen batz bestekoak dira.



Afilizioaren banaketa sektore ekonomikoen arabera

LURRALDEA	LEHENSEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
AIA	49	186	29	148	412
GETARIA	84	494	14	482	1.074
ORIO	20	118	165	914	1.217
ZARAUTZ	87	1.308	438	4.795	6.628
ZUMAIA	23	1.903	182	1.399	3.507
UROLA KOSTA	263	4.009	828	7.738	12.838
AIZARNAZABAL	11	258	21	130	420
AZKOITIA	49	2.180	299	1.535	4.063
AZPEITIA	96	2.092	672	3.630	6.490
BEIZAMA	9	12	4	21	46
ERREZIL	34	135	8	46	223
ZESTOA	51	1.055	97	715	1.918
UROLA ERDIA	250	5.732	1.101	6.077	13.160
GIPUZKOA	2.442	70.600	18.317	235.193	328.666
EAE	8.694	176.051	56.417	724.079	965.241

ITURRIA: Garapen Hiri Behatokia. 2022ko Abenduko datuak.

Establezimenduak jardueraren arabera

UROLA ERDIA	Aizamazabal	Azkoitia	Azpeitia	Beizama	Errezil	Zestoa	GUZTIRA
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	9	69	119	7	5	28	237
Eraikuntza	7	86	144	2	5	27	271
Finantza jarduerak eta aseguruak	0	14	28	0	0	6	48
Higiezin jarduerak	0	8	12	0	0	0	20
Industria eta energia	13	106	127	4	8	64	322
Informazioa eta komunikazioak	0	6	12	0	0	4	22
Jarduera profesionalak	5	82	155	0	2	23	267
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	20	221	426	3	16	110	796
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12	41	72	8	29	53	215
Zerbitzuetako bestelako jarduerak	4	63	112	2	3	29	213
GUZTIRA	70	696	1.207	26	68	344	2.411

UROLA KOSTA	Aia	Getaria	Orio	Zarautz	Zumaia	GUZTIRA
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	18	17	42	216	80	373
Eraikuntza	27	10	75	175	62	349
Finantza jarduerak eta aseguruak	2	6	11	47	15	81
Higiezin jarduerak	1	0	5	40	6	52
Industria eta energia	42	44	16	131	61	294
Informazioa eta komunikazioak	6	0	8	31	6	51
Jarduera profesionalak	22	26	61	279	74	462
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	57	104	148	649	234	1.192
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	68	44	17	41	17	187
Zerbitzuen bestelako jarduerak	15	23	42	158	61	299
GUZTIRA	258	274	425	1.767	616	3.340



BERTAKOIA ETA BERTAN, AZOKA PLAZAN

"Bertakoa, bertan" ahoz aho darabilgu lelo moduan. Onurak jakinekoak dira, eta bai, bakoitzaren sukaldeko platerak gutako bakoitzaren erabaki eta kontsumo ohiturak begi bistako egiten ditu. Zer erosi, non erosi, nola erosi. Kontsumitzaileon erabaki bakoitzaren atzean zergatiak daude. Hori horrela, Azkoitiko Udalak, Gipuzkoako Azoken Sarean sartzearekin batera, azoka biziberritzeko plan integrala burutu zuen, eta Azokako Lan Mahaia sortu, tokiko erakundearekin elkarlanean, espazioa biziberritzeko.

"Guztion ahotan dabil bertakoa dela hobere-na, bertakoa sustatu behar dugula, baina gaur egungo bizimoduak sarritan bertako ekoizle, baserritar eta dendariantzat oso mesedegarriak ez diren erabakiak hartzera garamatza. Kontsumo arduratsua nahi dugu, eta horretarako bideak eta baliabideak jarriko ditugu. Eroslearen kontzientzia astintzea ez da nahikoa. Produktuek eta espazioek lagundu egin behar dute, bezeroa erakartzeko, eta hor erakundeek lagundu dezakegu eta horretarako borondate osoa dugu, gainera", dio Ana Azkoitia alkateak.

Azoka Plaza indartzeko planak hainbat jarduketak hartzen ditu barne, eta horietako bat instalazioen hobekuntza da. Gunea erakargarriagoa, erosoagoa eta irisgarriagoa egitea, alegia. Horixe da datozen hilabeteetan egingo dena. Udalak azokaren eraberritze lanak 524.990,13 euroko oinarritzko aurrekontuarekin atera ditu lizitaziora. Halaber, berritze lanak finantzatzeko erabiliko da Europatik jasotako dirulaguntzaren zati bat. Izan ere, Next Generation funtsetatik udalak 1.362.949,60 euroko dirulaguntza eskuratu du azoka eta tokiko merkataritza berrindartzeko.

Eraberritze lanen nondik-norakoak baserritarrek eta ekoizleekin adostu dira, lan-mahaia- ren bidez. Jarduketak hainbat lan hartzen ditu bere baitan. Lehenik, estalkia berrituko da. Sabaiko fibrozementuzko plakak erretiratu eta egurrezko egitura duen estalkia jarriko da. Halaber, kanpoko ate metalikoek pisu izugarria dutenez, erdi irekita egon ohi dira, aire korrontea sortuz. Horregatik, lau sarrera nagusietan gidaridun ate automatikoak jarriko dira, eta barne atondoak eraikiko dira. Ateez gain, instalazio elektrikoak eta luminariak berrituko dira LED argiteria jarrita, eta pintaketa lanak burutuko dira. Irisgarritasunari dagokionez, lbaiondo kaletik sartzerakoan bi maila daude, eta horien orde, arrapalak jarriko dira. Helburua da Azoka Plaza berrindartzea, eta tokian tokiko kontsumoa sustatzea.

Errekauek zerbitzua martxan jartzeko lehen urratsak

Udalak, espazioa biziberritzearekin batera, zerbitzuen aldeko apustua egingo du. Hala, Herrixen elkartearekin eta Iraurgi Berritzenekin elkarlanean, abian du Errekauek proiektua. Herritarren eguneroko bizimodua errazteko helburua du zerbitzuak. Horrela, bezeroek Whatsapp edo beste aplikazio baten bidez enkarguen zerrenda egin ahalko dute, eta erosketa horiek etxean bertan jaso ahalko dituzte nahi izanez gero, eta ondoen datorkien ordutegian. Azoka Plazan jarriko den kontsignan edo saltokian bertan ere erosketak jasotzeko aukera izango da, aurrez eskaera eginda, bezeroak prest izango baitu erosketa saskia edo poltsa. ■

ENPRESEN BEHARREI ERANTZUTERA DATORREN GARAPENA

Larrin 22 hirigintza eremuaren plan partziala onartu du udalak; eremuaren bereizgarrietako bat izango da beren beharren arabera eraiki ahal izango dutela enpresek.



Azpeitiko industria beharrei erantzuteko helburuz, 2020ko azaroan Larrin eremua garatzeko konpromisoa sinatu zuten Azpeitiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak. Urratsez urrats, aurrera jarraitzen du proiektuak: urriko udalbatzarrean, aho batez onartu zuten Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorreko Larrin 22 hirigintza eremuaren plan partzialaren aldaketa, eta, eremu horretan obretan hasi ahal izateko, gestio eta exekuzio fasean sartu da orain.

Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak azaldu duenez, Larrin eremuaren garapena "oso garrantzitsua" da udalarentzat, "Azpeitiko nahiz eskualdeko enpresek egin diguten eskaera bati erantzuna emango diolako". Izan ere, enpresekin izandako hartu-emanetan, lurzoru industrialaren eskaintza falta dela aipatu izan dute haiek. Esate baterako, Urolako Industrialdea sozietateak azterketa bat egin zuen Azpeitiko enpresen artean, eta ia erdiek handitzea nahi zutela adierazi zuten, baina lurzoru industrial faltagatik, horretarako aukerarik ez zutela adierazi zuten.

Larringo eremuaren ezaugarri nagusietako bat da enpresa bakoitzaren beharren arabera eraiki ahal izango direla pabiloiak, bakoitzak behar dituen altuera, dimentsio eta abarretara egokituz; hau da, ez dira eraikitako azpiegiturak eskainiko, baizik eta eskaerara doitu da eskaintza. "Enpresa bakoitzak bere tipologiaren arabera eraiki ahal izango du", zehaztu du alkateak.

Sustapen ekonomikoa, lehentasunezkoa

Alkortak gogora ekarri du Azpeitiko Udalaren bi lehentasun nagusiak gizarte babesa eta sustapen ekonomikoa direla. Sustapen ekonomikoari lotuta, adibidez, 400.000 euro bideratu ditu aurten laguntzetara: 100.000 euro zerbitzuen sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak indartzeko; 160.000 euro industria proiektu estrategiko edo berritzaileei, eraikuntza sektoreko gremioei eta garraiolariari laguntzeko; 65.000 euro ekintzailtza sustatzeko, bereziki gizarte ekonomian eta izaera estrategikoa duten jardueretan; eta gainontzeko 65.000 euroak langabezia dauden pertsonen kontratazioak indartzeko. "Laguntza horiek oso garrantzitsuak dira, baina, horiekin batera, lurzoru industrialaren eskaintza publikoa ere ezinbestekoa da", adierazi du Alkortak.

Larrin eremuak 210.210 metro koadroko azalera du, eta horietatik 107.409 metro koadro bideratuko dituzte industria jardueretara. Eremua egokitzeak 20 milioi euro inguruko inbertsioa eskatuko du, eta lanak 2025erako amaituta egotea aurreikusten dute. ■

Eremua egokitzeak 20 milioi euro inguruko inbertsioa eskatuko du, eta lanak 2025erako amaituta egotea aurreikusten dute

Eremuak 210.210 metro koadroko azalera du, eta horietatik 107.409 metro koadro bideratuko dituzte industria jardueretara

«INGURUMENARI LOTUTAKO JARDUERA EKONOMIKOEK LANPOSTU BERRI UGARI SORTUKO DITUZTE ETORKIZUN HURBILEAN»

Unai Andueza
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
EKONOMIA SUSTAPENENKO ZUZENDARIA

Aurtengo irailean heldu zion Unai Anduezak (Azkoitia, 1973) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko zuzendari karguari. Aurretik, 2020tik 2023ra bitartean, aldundiko Proiektu Estrategikoetako arduradun lanetan aritu zen, Mubil, Adinberri edota Elkar Ekin bezalako proiektu estrategikoak bultzatuz. Orain, zuzendari karguan, enpresen jasangarritasun hirukoitza bultzatzea du helburu, enpresak lehiakorrek, ingurumenarekin lagunkoia eta inklusiboak zein talentudunak izan daitezten. Departamentuan zenbait lan ildo ezarri dituzte helburu horiek lortzeko.

2023ko irailean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Proiektu Estrategikoetako zuzendari izatetik Ekonomia Sustapeneko zuzendari izatera igaro zara. Zein arlo ukitzen dituzu orain?

Gipuzkoak gaur egun dituen bizi kalitate eta ongizate soziala mantentzeko, behar-beharrezkoa da ekonomia sendo eta indartsu bat izaten jarraitzea. Horretarako, Ekonomia Sustapen zuzendaritzatik, enpresen

jasangarritasun hirukoitza bultzatzea dugu helburu, hau da, bai lehiakorra eta ekonomikoa, bai ingurumenari loturikoa, eta baita soziala ere. Enpresen bidelagun izaten saiatzen gara, lehiakorrek izaten jarrai dezaten eta eraldaketa horietara egokitzen jakin dezaten. Enpresa proiektu berriak sortu nahi dituzten ekintzaileei ere babesa eskaintzen diegu.

Zeintzuk dira, une honetan, departamentuan finkatuta dituzuen lan arlo nagusiak eta zein fase-tan daude horiek?

Azken urteetan hainbat lan ildo jorratu dira zuzendaritza honetatik, beti ere lurraldeko enpresen beharretara egokituz. Askotariko laguntza lerroak eta proiektuak jarri ditugu abian; tartean, pertsona erdigunean jartzen duten enpresa ereduak eta kudeaketa kultura berritzaileak bultzatzeko, langileen partaidetza sustatzeko, edota pertsonen etengabeko formakuntza eta ikaskuntza lantzeko.

Horiez gain, enpresa txikien eta ertainen ahalegina babesten dugu barne ekintzailetasunean eta dibertsifikazioan,

nazioartekotzean, beste enpresekiko elkarlanean, edota errelebo prozesuen aurrean jarduerari jarraipena ematerakoan.

Azken urteotan indarrez sartu den eta pisu garrantzitsua izango duen ekonomia berdea sustatzeko lan lerroak ere baditugu. Datozen urteetan garrantzi berezia hartuko dute azken lerro horiek.

Eta zein dira departamentuko erronkarik nagusienak epe labur, ertain eta luzera begira?

Departamentuaren erronka nagusienak gaur egun gure enpresak dituztenekin bat datoz. Orokorrean Gipuzkoak enpresa txikiz eta ertainez osatutako enpresa sarea dauka, eta horietako asko familia enpresak dira. Enpleguaren %60 50 langile baino gutxiagoko enpresetan dago. Horrek badiu abantaila batzuk, egoera berrietara egokitzeko malgutasuna, adibidez, baina erronkak ere badakartza; izan ere, globalizatutako merkatuetan lehiakorrek izaten jarraitzeko, dibertsifikazio prozesuak gartzeko eta berrikuntzak sus-



tatzeko, enpresen tamainak badu bere garrantzia.

Trantsizio digitalari, ekologikoari eta demografikoari aurre egitea ere nahitaezkoa izango dugu, bai enpresa ehunei lotuta, eta baita gizarte bezala ere. Kontuan hartuz gero industriari lotutako lurraldean bizi garela eta izaera horri eutsi nahi diogula, industria berde, aurreratu eta berritzailea behar dugu gure etorkizuneko ongizatea bermatzeko.

Zer moduz ari dira moldatzen enpresa horiek trantsizio ekologiko jasangarrira?

Ekonomia berdeak garapenerako hainbat aukera ekarriko ditu. Energia eraginkortasunaren bilaketak, ekonomia zirkularrak eta oro har ingurumenari lotutako jarduera ekonomikoek lanpostu berri ugari sortuko dituzte etorkizun hurbilean.

■ **«Izaera ekintzailea gazteei eta belaunaldi berriei transmititzea oso garrantzitsua da»**

Aukera horiek guztiak identifikatu eta gauzatzeko ezinbestekoa da pertsonen gaitasun berriak garatzeko ibilbideak prestatzea eta horietan murgiltzea. Enpresek ere adi egon beharko dute, zenbait sektorek eraldaketa nabariak izango dituztelako jasangarritasunari lotuta. Zenbait kasutan jardueren balio kateak ere aldatu egingo dira. Adibide garbientariko bat, ez bakarra, automozio sektorea da.

Ekintzailtza da ekonomia eta gizartea eraldatzeko beste palanketako bat. Gipuzkoa lurral-

de ekintzailea dela esango zenuke?

Ekintzailtasunak leku nabaria izan du Gipuzkoan betidanik. Gaur egungo enpresa sare zabala bere egunean ekintzaile izan ziren hainbat eta hainbat pertsonari zor diogu, arriskuak hartu zituztenei, hutsetik hasita gogor lan egin zutenei; haiei esker ditugu gaur egun nazioartean aitortza jaso duten zenbait proiektu garrantzitsu. Hala ere, azken urteotan ekintzailtza aldatuz joan da, gizartearekin batera, baina izaera ekintzailea gazteei eta belaunaldi berriei transmititzea oso garrantzitsua da. Ideia bat dutenek bakarrik ez daudela jakin beharra daukate, eta erakundeetatik laguntza eta babes ekonomikoa eskaintzen ditugula ezagutu behar dute. Badago segurtasun sare bat, eta



merezi du pausoa ematea. Ekintzaile berriak behar ditugu Gipuzkoan eta Euskadin.

Hain zuzen, ekintzailetza berritzailea eta teknologikoa sustatzeko eta laguntza eskaintzeko daukagun tresna BIC Gipuzkoa da. Bertako teknikari eta adituek pertsona ekintzaile horiei ibilbide osoan laguntzen diete, izan ideiak garatzen, zubi lanak egiten, zein inbertsiogileen topaketara laguntzen. Horretaz gain, Txekin eta Eme-kin programak ere baditugu,

negozio berriak abian jartzeko bideragarritasun planak egiteko balio duten diru laguntza lerroak. Aurten, adibidez, ia bi milioi euro bideratu ditugu gisa horretako laguntzetara, eta 291 enpresa proiektu bultzatzeko balio izan dute laguntza horiek. Proiektu horietako 161 emakumeek martxan jarriak izan dira.

Talentua erakartzea da departamentuaren beste erronketakobat. Nola erakarri beharko litzateke lurraldera talentu hori?

Talentua pertsona guztietan dagoela esanez hasi nahiko nuke. Pertsonen gaitasun desberdinak dira, azken finean, norberak dituen talentuak. Hor sartzen dira ezagutza teknikoak eta eskarmentua, baina baita bestelako balioak ere: ikasteko eta elkarlanean aritzeko ahalmena, komunikatzekoa eta abar. Behar ditugun gaitasunak erakartzea bezain garrantzitsua da txikitatik gaitasun horiek sortzea, garapenean laguntzea, eta baita ondoren fidelizatzen jakitea ere. Talentuari bide emateko enpresa proiektu erakargarriak behar ditugu. Edozein kasutan, aldaketa demografikoa medio, garbi dago kanpoko pertsonak erakarri beharko ditugula gure enpresen izango dituzten behar eta erronkei erantzuteko.

Ikerketa eta garapenari lotuta, Gipuzkoaren presentzia zenbaterainokoa da Europan?

Zalantzarik gabe, lurralde berritzailea gara. Eustaten azken datuaren arabera, BPGaren %2,75 inbertitzen dugu iker-



ketan eta garapenean, Europako batez bestekoaren gainetik, eta Danimarka bezalako herrialdeen pare. Euskal Autonomia Erkidego mailan Gipuzkoa da buru. Europako Batzordeak argitaratzen duen *Regional Innovation Scoreboard* azken txostenak ere erkidegoa berrikuntza altuko lurralde gisa kokatzen du, berrikuntza gutxiko eremu geografiko batean, gainera. Alegia, salbuespena garela esan dezakegu. Produktuari lotutako berrikuntzan oso sendo gaude, baina hobetzeko erronka nagusia berrikuntza ez teknologikoan daukagu –kudeaketan, enpresa antolaketan eta salmenta sistema berrietan, esaterako–. Gipuzkoako egoera berean legoke Urola Kosta eskualdea ere.

Eskualdeari lotuta eta azkoi-tiarra izanik, nola ikusten duzu Urola Kostako ekonomia aipatu berri dituzun arlo horietan guztietan?

Gure eskualdea ekonomikoki sendo dago. Langabezia tasa-

■
«Talentuari bide emateko enpresa proiektu erakargarriak behar ditugu»

■
«Urola Kosta eskualdea nazioartean erreferente diren hainbat enpresen kokagune da»

ri dagokionean, 2023ko urriko datuen arabera, kostako herrien tasa %6,3an kokatu zen –Euskadi osoko daturik onenetariko- eta barnealdeko herriena %7,6an.

Industriaren ekonomia jarduerari lotuta, Urola Kosta eskualdea nazioartean erreferente diren hainbat enpresen kokagune da, eta nabarmentzekoa da familia enpresek duten pisua. Horri lotuta, 90eko hamarkadan Hermann Simon ekonomialari alemaniarrek sor-

tutako *txapeldun ezkutua* kontzeptua gogora ekarri nahiko nuke. Kontzeptu horrek beren sektorean liderrak diren eta merkatuan ezkutuan mantentzen diren profil baxuko familia enpresei egiten die erreferentzia, zeregin diskretua duten arren, herrialdeen jarduera ekonomikoa ziurtatzeko ezinbestekoak direnei. Urola Kosta eskualdean halako asko ditugu.


Trantsizioei lotuta, berriz, adi jarraitu beharko ditugu aurrean ditugun erronkak, lokartu gabe horiei behar bezala aurre egin ahal izateko. Pertsonak eta talentua erakartzeko ahaleginak gero eta nabariagoak izango dira Europako lurralde guztietan eta haien parean egon behar dugu. Pertsonak lana, garapen pertsonal ona eta bizitzeko leku atseginak bilatzen dituzte. Proiektu erakargarriak sortu eta eskaintzeko gai garen heinean, pertsonak gure eskualdera gerturako diren zailantzarik ez dut, bizi kalitatea bermatuta baitute bertan. ■

OBEKINEMATICS
DESIGN the motion

Pol. Ind. Etxezarreta, 1
 20749 Aizarnazabal
 Gipuzkoa
 +34 943 897 200
 info@obekinematics.com
 www.obekinematics.com

 <https://www.linkedin.com/company/obe-kinematics>

**Giza - eskalako
 ingeniari-tza
 eta produkzioa**

powered by  **Hettich**



ALBERDI MEKANIZATUAK, TXIKITIK HAZIZ

Duela 60 urte baino gehiago, Alberdi familiak enpresa sortu zuen Azkoitian. Lantegi txiki hura, 41 langile dituen mekanizatu arloko enpresa bilakatu da. Altzairuzko, altzairu herdoilgaitzeko, plastikozko, brontzezko eta beste material askotako piezen mekanizazioa egiteaz gain, bezeroari zerbitzu oso bat eskaintzen diote orain: mekanizazio prozesua eta muntaketa lanak gauzatzea, eta produktuaren stocka entregatzea eta kudeatzea ere bai.

Urola bailaran mekanizazio arloko enpresa ugari dauden arren, gutxik izan dute Alberdi Mekanizatuak enpresak izan duen adinako hazkundea. Hala, gaur egun, denera 3.000 metro koadroko azalera duten bi tailer ditu. Hazkunde horrek eragina izan du enpresako lan egiteko moduan, eta teknologia berrien implementazioan buru-belarri sartuta daude azken urteetan.

"Abangoardian egon nahi dugu, oraingo naiz etorkizuneko bezeroei abantailak eskaintzeko asmoarekin. Horregatik, abian jarri ditugu salto kualitatiboa ematea ahalbidetuko diguten aldaketa teknologikoak", azaldu du Alberdi Mekanizatuak enpresako koordinatzaile Aitzol Alberdik.

Honako hauek dira egin berri dituzten aldaketak:

1. Makina berritzaileak. Duela urte batzuk eskuz egiten zuten lana, baina teknologia eremua irabazten joan da poliki-poliki, eta eskuz egiten zuten lan hori orain makinek egiten dute, gizakiaren laguntzarekin. Produktu berriak egiteko erraztasuna, sorta txikiago eta pertsonalatuagoak egin ahal izatea, kalitatea handitzea, eraginkortasuna handitzea, eta produkzio baliabideak optimi-

zatur; hori guztia ekarri die makinak berritzaileak sar-tzeak.

2. Eguzki plakak. Makina berritzaile horiek guztiek kontsumitzen duten energia kopuru handia ikusita, Alberdi Mekanizatuak enpresaren arduradunek energia berriztagarrien aldeko apus-tua egin zuten, eta eguzki plakak jarri dituzte lantegiko sabaian. Energia garbien alde egiteaz gain, energia kontsumoan eta aurreztean pausoa eman dute.

3. Enpresa konektatua. Gaur egungo gizarteak azkartasuna eta optimizazioa eskatzen ditu, eta bezeroek eta hornitzaileek ere bai. Horregatik, Alberdi enpresa konektatua izateko pausok ematen ari da: kanpora begira, ERP desberdinak elkar konektatuz; eta barrura begira, makina guztiak sarean sartuz eta MES sistema ezarriz. Modu horretara, hainbat eta hainbat seinale jasotzeko eta interpretatzeko gaitasuna du, ekoizpen denbora erreala jakinez, matxurak aurreikusiz eta abar.

4. Erreminten biltegi digitala. Alberdi Mekanizatuak enpresan tamaina eta forma askotako piezak egin behar izaten dituzte, eta pieza horiek egiteko, makinetan aldaera desberdinak eduki behar izaten dituzte. Kudeaketa hobetzeko, sei metroko altuera izango duen biltegi digitala ezartzeko eskaera eginga dute, erreminta bakoitzaren posizioa eta egoera une oro jakitea ahalbidetuko diena.

5. Stocka kontrolatzeko pisu bidezko sistema proiektu pilotua. Alberdik bezero batzuei zerbitzu gehigarria eskaini asmoz, piezen stocka kudeatzen die. Askotan, ordea, horien gaineko informaziorik ez du izaten, eta "alferrik" egiten dituzte bidaia asko. Horri itzulia eman, eta karbono aztarna gutxitu, inguru-



mena zaindu eta denbora optimizatzeko, pisu bidezko kaxa digitalizatuak ezartzen ari dira, piezak eraman behar dituzten edo ez jakiteko. "Proba pilotu bat besterik ez da, baina emaitza onak emango dituelakoan gaude".

Oraindik goiz da berrikuntza edo implementazio horiek guztiek ekarriko dituzten onurak aztertzeko edo zehazteko, baina, barne mailan, ziur daude lan egiteko moduan erraztasunak ekarriko dizkietela. Kanpora begira, berriz, "Alberdiren bezero eta hornitzaileekin dugun harreman ona mantentzeko ezinbesteko pauso bezala" ikusten dituzte berrikuntzak.

Euskaran ere, aurrera

Digitalizazioan ematen ari diren pausoez gain, Alberdi Mekanizatuak enpresak badu beste erronka bat 2024ari begira: Bikain ziurtagiriko Urrezko Diploma eskuratzea. "Berrikuntzaren eta teknologiaren garaian, bertakoa eta gurea dena ahazten denaren sentipena dugu, eta euskara bada zaindu behar dugun altxor bat. Horregatik, 2024ean Bikain ziurtagiria lortzeko pausok ematen hasiak gara", azaldu du Alberdik. ■



UKT

GERTUKO KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ

"Gero eta konplexuagoa da komunikazioaren arloa, eta herriz herriko egitura txikietatik ezinezkoa zitzaigun mundu digital berriaren erronkei heltzea. UKTn indarrak batuta, 33 profesionalen osatutako egitura indartsu bat antolatu dugu, gure herritarrei merezi duten kazetaritza eta komunikazio bide eraginkorrenak eskaintzeko gai dena. Erabat sinesten dugu tokiko euskarazko kazetaritzak aurrerapauso nabarmenak egin ditzakeela indarrak batuz gero".


ZER GAREN

Urola Kostan eta Urola Erdian 30 urtez tokiko kazetaritza euskaraz egin duten sei hedabideren bateratzeetik sortu zen 2019an Urolako Komunikazio Taldea, irabazi asmorik gabeko kooperatiba izaerarekin. Tokiko hedabide multimediak argitaratzen ditugu, eta komunikazio zerbitzuak eskaintzen dizkiegu gure gizarteko enpresa eta erakundeei, gertuko garapen jasangarrian eragin nahi dugulako.



/ KAZETARITZA

UKTk lau aldizkari (Karkara, Baleike, Uztarría eta Maxixatzen), egunkari bat (Urola Kostako Hitza), telebista bat (Erlo) eta zazpi webgune argitaratzen ditu (karkara.eus, zarauzkohitza.eus, baleike.eus, uztarría.eus, maxixatzen.eus, urolakosta.hitza.eus eta erloitelebista.eus). Bulegoak dauzkagu Orion, Zarautzen, Zumaian, Azpeitian eta Azkoitian. Gaur egun, liderrak gara euskarazko kazetaritza digitalean: gure webguneek 9 milioi bisita jasotzen dituzte urtero.



/ KUDEAKETA AURRERATUA

UKT sortu genuenean garbi genuen, gobernantza eredu partekatuarekin batera, kudeaketa eredu aurreratu bat behar genuela, erakundearen ahalmen guztiak garatu eta etorkizun oparoa bermatzeko. Horregatik ekin genion kudeaketa aurreratuaren bideari, Euskaliten eskutik. Aurten brontzezko A ziurtagiria jasoko dugu.

/ KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

Bezerearen beharrei egokitutako komunikazio zerbitzuak eskaintzen dituen lantalde profesionala antolatu ahal izan dugu bateratzeari esker. Gure hedabideetako ohiko espazio komertzialez gain, zerbitzu digitalak, ikus-entzuzkoak edota diseinu lanak egiten ditugu, besteak beste. Tokiko merkataritzari ingurune digitalean modu eraginkorrean murgiltzen laguntzea da gure helburu nagusietako bat.



/ GUKA ESTRATEGIA

UKT ez zen sortu soilik gure eskualdean existitzen ziren hedabideei eusteko. Horiek hobetzea izan da lehen helburua, baina aurrera begiratzeko ordua iritsi da, eta horretarako Guka estrategia prestatu dugu: gure eskaintza berritzeko, egunero irakurtzen gaituzten herritarren atxikimendua areagotzeko eta gure gizarteari garatzen laguntzeko.

GUERE KONPROMISOA

Urolako Komunikazio Taldeak gizarteari ahalik eta komunikabide onenak eskaintzea du helburu, edozein dela forma-tua edo euskarria. Gure erabateko konpromisoa berresten dugu euskararekin, kazetaritzak tokiko demokraziari egiten dion ekarpenarekin eta gertuko garapen ekonomikoarekin. Hori guztia, erakunde sendo eta profesional batetik egin nahi dugu, gizartean txertatuta, komunitateko kideen babesarekin, eta sektorearekin, eragileekin eta erakundeekin elkarlanean. ■



☎ 943-81 38 41

📍 Soreasu 1 Azpeitia

✉ urolakosta@ukt.eus

🌐 www.ukt.eus

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN BIDELAGUN

Gipuzkoako Foru Aldundia hainbat egitasmo garatzen ari da Gipuzkoako ETE-eri eraldaketei aurre egiten laguntzeko, berrikuntza eta elkarlana sustatuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuek lurraldean ekonomia indartsu bat izaten laguntzea dute helburu nagusi. "Egungo eta etorkizuneko ongizatea bermatzen lagunduko digun ekonomia lehiakor bat: jarduera ekonomiko, enpresa, erakunde, eragile eta pertsona lehiakorrez osatutakoa. Horrek ahalbidetzen du aberastasuna sortzea eta banatzea; kalitatezko enpleguaren bitartez, zerbitzu publiko sendo batzuk sostengatzea; eta inor atzean ez uztea bermatzen duten gizarte politikak garatzea", nabarmendu du Ane Insausti Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako diputatuak.

Helburu hori eraldaketa sakon eta azkarrez beteriko garai batean lortu behar da: teknologiarik eta digitalizazioari lotutakoa, jasangarritasunarekin eta klima aldaketarekin zerikusia duena, eta demografikoa. "Prozesu horiei aurre egiteko dugun gaitasunak baldintzatuko du neurri handi batean ekonomia indartsu eta lehiakor bat izaten jarraitzea. Horretan ari dira buru-belarri munduko ekonomia aurreratuenak, eta guk horien pare egoten jarraitu nahi dugu. Badago oso kontuan hartu beharreko errealitate bat: gure ekonomia ehuna enpresa txikiek eta ertainek osatzen dutela, ia bere osotasunean. Beraz, des-

berdinkeriarik aurre egiten jarraitu nahi badugu, ekonomia sendo bat eraikitzen, garbi eduki behar dugu aurretik ditugun desafioetako asko, enpresa txikiak eta ertainak erronkak direla", adierazi du Insaustik.

Hori horrela, departamentuak ia 73 milioi euroko aurrekontua du aurten, eraldaketa prozesuen aurrean enpresa txikiak eta ertainak jarduera bultzatzeko xedearekin: "Beraien ahalegin berritzaileari aparteko bultzada emanaz, horretarako proposak diren elkarlan testuinguruak sortuz eta industriari azpimarra jarriaz". Hauek dira Foru Aldundiak garatzen dituen egitasmoetako batzuk:

Eraldaketa digitala. Gipuzkoa Digitala ekimenaren bidez, 2,3 milioi euroko laguntzak ematen ditu urtero, industriaren digitalizazioa sustatzeko, batez ere enpresa txikiak eta ertainak. 4.0 produktuaren garapen teknologikoa, datuen balorizazioa eta eskualdeko garapen agentziekin lankidetzan aritzea aurreratu du, lehen urratsak eman nahi dituzten enpresei laguntzeko. Programa martxan jarri zutenetik, 240 enpresa baino gehiagori eman diete babes. Ildo berean, Foru Aldundiak, AFM Clusterrek eta IMH Campusek lankidetzan hitzarmena dute Gipuzkoako fabrikazio

aurreratuko lantegietan digitalizazio proiektu pilotu bat gauzatzeko. 30/1000 tailerra izeneko ekimen horrek 222.206,25 euroko aurrekontua du, eta 30 enpresa ari dira parte hartzen.

Industria zibersegurtasunaren esparruan egindako lana ere aipatzekoa da. Etorkizuna Eraikitzen ekimenaren barruan Ziur zentro aurreratua sortu zuen Foru Aldundiak 2019an. Harrezkero, bidelagun izan da industria sarearentzat, mehatxuei aurre egiteko, produktu eta prozesu aurreratuak garatzeko, eta ezagutza sortzeko. 900 enpresari eman die zerbitzua, eta beste 80 enpresak bere proiektu esperimentaletan parte hartu dute, zibersegurtasun teknologikak ebaluatuz eta probatuz zentroak dituen ekipamenduetan.

Eraldaketa berdea. Eraldaketa ekologikoa da Gipuzkoako enpresek aurretik duten beste erronketako bat: ekonomia zirkularrak ematen dituen aukerak aprobetxatzea, ekoizpen prozesuen karbono arrastoa eta hondakinak murriztea eta abar. Hala, enpresa ehunean eta ekosistema sozioekonomikoan trantsizio ekologikoa, jasangarria eta bidezkoa sustatzeko programa garatzen du aldundiak urtero. Aurten deialdiak 2,24 milioi euroko aurrekontua du, eta laguntzak hiru multzotan



Eider Mendoza diputatu nagusia, Ane Insausti diputatua eta Igor Villarreal Mubil-eko zuzendaria, zentroaren egoitza berriaren obretara egindako bisitan.

banatzen dira: trantsizio ekologikoa enpresetan bultzatzeko proiektuen finantzaketa (1,3 milioi euro); bizialdi osoko ikaskuntzarako sisteman pertsonen trebezia eta gaitasun ekologikoak sustatzeko proiektuen finantzaketa (300.000 euro); eta Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan haren eraldaketa ekologikorako ezagutza sortu, transferitu eta partekatzeko proiektuen finantzaketa (600.000 euro).

Etorkizuna Eraikiz. Gipuzkoak, aurreko agintalditik, etorkizuneko ekonomia eraikitzeke ibilbide orria du, erreferentziazko zentroen eta Etorkizuna Eraikiz proiektuaren barruan jasotako proiektu estrategikoen eskutik. Proiektu horien hedapenean aurrerapen handiak egin dira. Mugikortasun adimenduna eta jasangarria, zahartze osasungarria, klima aldaketa, terapia aurreratuak, teknologia kuantikoak edota zibersegurtasuna lantzen dira, besteak beste, I+G+b zentroekin, enprekin, unibertsitateekin eta beste era-

gile batzuekin batera, etorkizuneko ekonomiaren eta enpleguaren oinarriak balio erantsi handiko eta trakzio berritzaile-rako gaitasuneko sektoreetan jartzeko.

Mubilen egoitza berriaren inaugurazioa Donostiako Eskuzaitzeta industrialdean, datorren urtearen erdialdean, mugari garrantzitsuetako bat izango da. Eraikinaren egitura guztiz altxatu dute dagoeneko, eta aukera emango du jauzi kualitatibo bat emateko espazioaren ikuspegitik–Tolosako behin-behinekoko egoitza baino lau aldiz handiagoa izango da– nahiz gaitasun teknologikoenetatik–biltegitratzeko laborategiari, *powertrain*ekoa eta hidrogenozko erregai pilarena gehituko zaizkio–; guztiak ere funtsezkoak dira etorkizuneko ibilgailu arinen eta astunen osagai kritikoak testatzeko eta konponbide eta prototipo berriak garatzeko. Energia biltegitratzeko laborategia hara lekualdatuko dute Tolosako egungo egoitzatik, eta martxan jarriko den lehe-

nenbizikoa izango da. Bigarren eta hirugarren laborategien ekipamendua urtearen bigarren erdian egongo dira operatibo.

"Horrela, berme osoz heldu ahal izango diegu mugikortasuna eraldatzen ari diren eremu estrategikoei, lehen mailako zerbitzu aurreratuak emandako gure enpresa txikiei barne, eta ikerketa zentroeiei, beren lehia-kortasuna handitzeko, gaitasun osagarriak gehitzeko eta gure industria sarea finkatzeko eta jarduera berria eta enplegua sortzeko oinarriak jartzeko", azpimarratu du Ane Insaustik. "Mugikortasunari lotutako industriak pisu handia du Gipuzkoan, eta eraldaketa sakonean dago. Bistakoa da indarguneak baditugula, eta aldaketa hori landu behar dugu espezializazioaren ikuspegitik eskaintzen dituen aukerei begirata, herrialde eta lurralde aurreratuaren pare jarrita. Orain da horretarako momentua, eta Mubil da Gipuzkoak hori lortzeko duen borondatearen adibide garbia". ■

LEHIAKORTASUNA ETA ONGIZATEA ESKUALDEAN


Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuak 2021ean aurkeztutako esparrua ardatz hartuta, Urola Erdiko eta Urola Kostako lehiakortasunari eta ongizateari buruzko analisi laburra jasotzen da artikulu honetan.

Testua:

Aitziber Elola

Orkestrako ikertzailea

Garapen ekonomikoak eta horretarako funtsezkoa den berrikuntzak pertsonen ongizatea bilatu behar dutela, eta mundu mailan gaur egun ditugun hiru trantsizioekin (energia eta klima aldaketa; eraldaketa digitala eta teknologia aurrerapenak; eta bilakaera demografikoa) lotutako erronkei erantzuteko beharrak lehiakortasunerako eredu berriak eskatzen dituela abiapuntuz hartuta, 2021ean Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuak ongizatea helburu duen lehiakortasun esparrua aurkeztu zuen, eta haren berri eman zuen 2021eko argitalpenean Mari Jose Aranguren Orkestrako zuzendariak. Han jaso zen bezala, ongizatearen zerbitzura dagoen lehiakortasunak ekonomia eta enpresa emaitzen dimentsioak eta giza ongizatearen emaitzen dimentsioak uztartzen ditu –irudian erdigunean urdinez daudenak–. Dimentsio horiek eta elkarren arteko eragina bi elementu multzok baldintzatzen dituzte: alde batetik, lurraldeko egiturazko ingurune elementuek –irudian ezkerrean–, eta, beste alde batetik, palanka dinamikoek –irudian eskuinean–.



Gainera, zeharkako oinarritzko beste zenbait elementu ere eranstean dira: inklusibitatea eta nazioarteko lotura.

Esparru horretatik abiatuta, funtsezko adierazle batzuk hautatu ditugu esparruaren dimentsio bakoitzerako. Adierazle horietan oinarrituta eta Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatuta, Urola Erdiko eta Urola Kostako lehiakortasuna aztertu ditugu. Ondorengo paragrafoetan laburbiltzen dira beheko taulan jasotako emaitza esanguratsuenetako batzuk.

Lurraldeko egiturazko inguruneko elementuen artean, **egitura geo-demografikoari** dagokionez, Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatuta, Urola Erdiak biztanleria dentsitate txikiagoa du eta Urola Kostak handiagoa, nahiz eta lehenengoan 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehuneko txikiagoa izan. Zahartze eta immigrazio tasak, berriz, bi eskualdeetakoak Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik daude.

Ekonomia eta enpresa egituran, alde batetik, nabarmentzekoa da bi eskualdeetan nekazaritza eta arrantzak duten pisu handia, nahiz eta sektoreko enplegu maila %4ra iristen ez den bi kasuetan. Bestetik, nabarmentzekoa da eskualdean enplegu industrialaren pisua, batez ere Urola Erdian, non enplegu guztiaren %40tik gora bertan kontzentratzen den; aldiz, merkataritza zerbitzu aurreratuetan azpi espezializazioa nabarmena da, sektore hori bereziki Donostian kontzentratzen delako. Enpresa egiturari dagokionez, berriz, azpimarratzekoa da enpresa egituraren atomizazio maila altua, Urola Kostako industria establezimenduen tamaina txikiagoa eta bi eskualdeetan 50 edo lan-


1. Intermixta
2. Conexión Jack para sonido de conexión
3. Zona de ventilación
4. Resalta sujeción rejilla

Rejilla protectora
Tela de protección
Módulo protección de nivel mínimo

Ostalaritzarako Hornigaiak
www.sammic.com

LURRALDEEN ARTEKO ALDEAK (GIPUZKOA=100)

- Urola Erdia
- ◆— Urola Kosta
- GIP
- ▲— EAE



gile gehiagoko enpresetan enpleguaren ehuneko txikiagoa kontzentratzean islatzen dena.

Ongizatearen dimentsioen atalean, bizitzaren alderdi materialak barne hartzen dituen dimentsioa batezbesteko errenta pertsonala erabiliz neurtzen bada, orokorrean ez da Gipuzkoako eskualdeen artean alde handirik ikusten. Urola Erdia eta Urola Kosta batez bestekotik oso gertu kokatzen dira. **Enpleguari** dagokionez, bi eskualdeetako langabezia datuek bilakaera positiboa izan dute azken urteetan, eta bi eskualdeetako langabezia indizea Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik kokatzen da, batez ere Urola Kostan. Hala ere, nahiz eta azken urteetan jaitsi, enplegu tasei dagokien genero arrakala oraindik Gipuzkoako batez bestekoa baino altuagoa da Urola Erdian, eta baxuagoa da Urola Kostan. **Gizarte bizitzaren** adierazle bezala mila biztanleko delituen indizea kontutan hartuz gero, Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik kokatzen dira. **Ingurumen** dimentsioan, oro har, Gipuzkoako airearen kalitatea ona bada ere, azpimarratzekoa da Urola Kostako airearen kutsadura maila baxua. Aldiz, **ikaskuntzari** dagokionez, Urola Erdia nabarmen da goi mailako hezkuntza duten 25-64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa txikiagoa izateagatik.

Ekonomia eta enpresa emaitzen dimentsioei dagokienez, **jarduera ekonomikoaren** atalean bi eskualdeek Gipuzkoako batez bestekoaren produktibitate maila antzekoa badute ere, Urola Kosta Gipuzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik kokatzen da biztanleko BPGari dagokionez, hau da, aberastasuna sortzeko gaitasun txikiagoa du eskualdeak.

*Iturria: Orkestra
Lehiakortasunerako
Euskal Institutua*

Enpresa errentagarritasunean, Urola Erdiko enpresek finantza errentagarritasun txikiagoa izan dute azken urtean. Aldiz, **ekin-tzaitzari** dagokionez, Urola Erdiko –mila biztanleko– hazkunde handiko enpresa kopurua Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa da, eta Urola Kostan txikiagoa.

Palanka dinamikoen esparruan, **kapital naturalari** dagokionez, batez ere Urola Kostan instalatutako berriztagarrien potentzia (10.000 kW biztanleko) txikiagoa da. **Kapital fisikoan**, nabarmentzekoa da kontsumo iraunkorreko ondasunen eta ekipo ondasunen industriako enpleguak bi eskualdeetan duen pisua, batez ere Urola Erdian. Bestetik, eskualdearen kokapenagatik eta izaeragatik espero moduan, garraioa eta komunikazioetako azpiegituren azalera Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa da Urola Erdian. **Finantzaketa** alorrean, alde batetik nabarmentzekoa da enpresen ondare garbia –pasibo osoaren ehunekotan– handiagoa dela Urola Erdian, hau da, bertako enpresek gehiago baliatzen dituzte funts propioak. Kapitalen nazioartekotzeari dagokionez, atzerriko akziodunak dituzten enpresen portzentajea Gipuzkoakoaren gainetik dago Urola Kostan, azpitik Urola Erdian, eta atzerritarren eskumenekoa diren enpresak ere gutxiago dira, batez ere Urola Kostan. I+Gri buruzko **jakintza** adierazleetan –I+G egiten duten establezimenduak mila biztanleko, enpresen I+Gko gastua BPGren ehunekotan, eta enpresetako I+Gko langileak– Urola Erdia Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik kokatzen den bitartean, Urola Kostaren kasuan eskualdearen posizioa hobetu beharreko alderdi gisa nabarmentzen da. Azkenik, Urola Erdian teknologia handiko eta ertain handiko manufaktoretako enpleguak duen pisu handiagoa ere nabarmentzen da.



**Santa Klarako esne
eta jogurt artisauek
eta osasuntsuak
baserritik merkatura
zuzenean**

*Esne hautsik eta azukre
gehigarririk gabe

Salmenta puntua:
San Telmo kalea 24,
Zumaia



DIMENTSIOA	ADIERAZLEA	GIPUZKOA	UROLA ERDIA	UROLA KOSTA
GEO-DEMOGRAFIA	Dentsitate demografikoa (biztanle/km2)	363,0	145,1	438,4
	10.000tik beherako udalerrietako biztanleria (%)	20,5	16,0	25,1
	Zahartze-tasa	23,3	20,4	20,9
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	12,6	11,2	9,6
EKONOMIA ETA ENPRESA EGITURA	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	1,0	2,2	3,9
	Industriako enplegua	23,4	41,9	25,8
	Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)	20,8	16,0	18,2
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	16,5	17,3	12,3
	Enplegua 50 edo langile gehiagoko enpresetan (%)	39,5	33,7	28,5
BIZITZA MATERIALA	Batez besteko errenta pertsonala (€)	20.201	19.895	21.389
ENPLEGUA	Langabezia indizea	8,2	8,1	6,1
	Genero arrakala enplegu tasetan	5,2	6,2	4,5
GIZARTE BIZITZA	Delituen indizea (1.000 biztanleko)	39,2	23,4	32,9
IKASKUNTZA	Goi mailako hezkuntza 25-64 urteko biztanlerian (%)	76,2	68,4	80,8
INGURUMENA	Airearen kutsadura (PM 2,5 partikulak)	8,5	8,2	5,4
JARDUERA EKONOMIKOA	Biztanleko BPG (€)	36.317	33.650	30.098
	Langile bakoitzeko ageriko produktibitatea (mila €)	66,6	68,1	69,0
ENPRESA ERRENTAGARRITASUNA	Aktiboen gaineko errentagarritasuna (%)	5,1	5,6	4,9
	Finantza errentagarritasuna (%)	9,4	8,1	8,9
EKINTZAILTZA	Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	0,37	0,71	0,23
KAPITAL NATURALA	Instalatutako berriztagarrien potentzia (KW 10.000 biztanleko)	1031,7	893,8	195,3
KAPITAL FISIKOA	Kontsumo iraunkorreko ondasunen eta ekipoen industrietako enplegua (%)	10,1	19,7	10,9
	Garraio eta komunikazioetako azpiegituren azalera (%)	1,4	0,7	1,3
FINANTZAKETA	Enpresen ondare garbia (%)	49,8	55,0	51,4
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	4,9	3,7	5,7
	Atzerriko eskumendekoak dituzten enpresak (%)	7,4	6,8	4,8
JAKINTZA	I+G egiten duten establezimenduak (1.000 biztanleko)	0,8	1,4	0,5
	Enpresen I+Gko gastua (BPGren %)	2,2	2,6	0,6
	Enpresetako I+Gko langileak DOB (%)	2,4	3,1	0,8
	Teknologia handiko eta ertain-handiko manufacturuetako enplegua (%)	9,9	14,4	9,7

Emaizta horiek Urola Erdiko eta Urola Kostako lehiakortasunari eta ongizateari dagozkion indargune, ahultasun, erronka eta aukerak identifikatzen laguntzen digute, lurraldeko pertsonen ongizatearen zerbitzura egongo den lehiakortasuna sustatzeko estrategiak eta ekimenak martxan jartzea ahalbidetuz. ■

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, Lanbide eta SABI. Geuk egina.

2023. URTEAK EMANDAKOIA



Greba

"Zaintzarako eskubide kolektiboaren alde", greba feminista orokorrerako deia egin zuen azaroaren 30erako Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Zaintza sistema publiko komunitarioa aldarrikatu zuen Urola Kosta guztiak, "egungo zaintza eredua guztiz pribatizatu dutelako". Horren ondorioz, "milaka eta milaka emakume baldintza onartezinetan" lanean ari direla salatu zuten, eta ezinbesteko jo zuten "bizitzaren zaintzaren egungo ordenamendu soziala eraldatzea". Hamaika ekintza egin ziren eskualdeko herrietan, herritarren babesarekin, eta zaintza kolektiborako eskubidearen alde egindako grebaren balorazio positiboa egin zuen Mugimendu Feministak.

Aurten 50 urte bete dituen Biele enpresa sortu zuten Julian Lazkanok eta Tomas Letamendiak, eta 2023ko Korta Saria jaso dute, Adeggi Gipuzkoako enpresariaren elkarteak proposatuta. Arantxa Tapia Ekonomiarren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren eskutik jaso zuten saria, eta bien ibilbide pertsonalak eta profesionalak nabarmendu zituen epaimahaiak saria emateko arrazoiaren artean; "Kointzidentzia ugari dituzte; besteak beste, jaiotza data (1945ean jaio zen Letamendia, eta 1946an Lazkano) eta herria (Azpeitia), ekintzaile izatera eta prestakuntza jasotzeko eta aurrera egiteko grina".



Korta saria Bielentzat



Xubik ETE saria eskuratu du

Espainiako Merkataritza Ganberak eta Santander bankuak sustatzen duten 2023ko Gipuzkoako ETE saria irabazi zuen Xubi Engranajes Azkoitiko enpresak irailean. ETEek (enpresa txiki eta ertainek) gizarteari eta ekonomiari egiten dieten ekarpenean "funtsezkoak diren alderdiak" aintzat hartzen dituzte sariak, hala nola, enplegua sortzea, talentuaren prestakuntza eta berrikuntza. Bide horretan, epaimahaiak "bereziki" kontuan hartu zuen lantegiak "enplegua sortzeko" egin duen ekarpena, nazioarteko merkatura egindako esportazioen "ehuneko handia" —salmenten %78— eta haren "etengabeko berrikuntza".

Gipuzkoako nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan aholkulari aritzen den Lurgintza kooperatibak egoitza estreinatu du 2023. urtean. Azpeitian izan du beti egoitza, eta aurten, Jose Artetxe kaletik Landeta auzora lekualdatu da. "2023a oso urte berezia da Lurgintzarentzat, bulego berria erosi baitu. Oraingo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko lanean segitzeko erreminta izango da lokal berria", nabarmendu du Arantzazu Martiarena Lurgintzako kudeatzaileak.



Lurgintzak egoitza berria



Tecnalia eta Credeblug

Azpeitiko Credeblug eta Tecnalia enpresek itsaso zabaleko lanen merkatuan aldaketa historikoa eragin dute 2023an, itsaso zabaleko kable elektrikoaren mantentze eta konponketa lanetako denborak eta kostuak murriztuz. Kable horiek ebaki ondoren eusten dituen lehen erreminta fabrikatu eta merkaturatu dute. Credeblugren tresna berritzaileak kableak heltzeko tresna bat eta kable ebakitzailerik bakar batean. "Mundu osoko itsas zabaleko kableak konpontzen dituzten enpresek funtzio hori eskatu izan dute XIX. mendean halako prozedurak egiten hasi zirenetik", agertu du Joannes Berque Tecnaliako ikerlariak.

Agur Fonnalaks ontziari



Iragarrita zegoen bezala, eta itsasagora baliatuz, Balenciagan egindako Fonnalaks ontziak Zumaiaiko portua utzi zuen martxoaren 23an. Hilabete askotan egon zen Saruneko moilara lotuta eta atoiointzi batek tiratuta utzi zuen Zumaia Pasaiara (Gipuzkoa) joateko. Han egin zizkieten azken lanak armadorearen esku utzi aurretik.



Elmubas, Gipuzkoako enpresa

Azpeitiko Elmubas Petfood Groupentzat izan da 2023 urteko Gipuzkoako Enpresa saria. Etxeko animalientzat elikagaiak ekoizten ditu Elmubasek, eta bere sektorean enpresa "erreferentea" delako, elikagai lehorrak ekoizteko Europako planta handiena izatera eraman duen "inbertsio ahalegin nabarmena" egin duelako eta produktu dibertsifikatuen gama zabal bat garatzeko "ahalegin berritzailea" gauzatu duelako saritu dute enpresa. Orendaundi industrialdean dago kokatuta Elmubas lantegia, eta 230 behargin ditu egun. Urtean 125 milioi euroko fakturazioa du enpresak, eta ekoizpenaren %55 esportatu egiten du, hala nola Argentinara, Israelera, Koreara nahiz Australiara. Batez ere, txakurrentzako eta katuentzako askotariko ezaugarriak dituzten jakiak egiten dituzte Azpeitiko lantegian.



ArcelorMittal Asturiasek Sarralle aukeratu du Gijonen (Espainia) arku elektriko labe berri bat eraikitzeko. Proiektua ArcelorMittalaren Espainiako jarduerak deskarbonizatzeko planaren parte da, eta obra zibila datorren urtearen hasieran hasiko dute. Urtean 1,1 milioi tonako ekoizpen ahalmena izango duen labe elektriko berria martxan jarritakoan (2025aren amaieran), instalazioak karbono isuri gutxiko altzairua ekoizteko aukera izango du, produktu luzeen sektorerako, eta, zehatzago, erreia eta alambre trefilatua egiteko. Sarrallek hautsa hartzeko sistema bat jarriko du, bai eta hondar beroa berreskuratzeko sistema bat ere, labe elektriko berriaren eraginkortasun energetikoa maximizatzeko. ArcelorMittal Europak CO2 emisioak %35 murrizteko konpromisoa hartu du 2030erako.



Biolur elkarteak Urola Kosta eskualdean "nekazaritza iraunkorren aldeko" Amillubi Lurra Taupaka egitasmoa abiatu du, bi urteko aurreko lanaren ondoren. Amillubi Lurra Taupaka proiektuaren bidez, Zestoako Iraeta auzoko Amillubi baserria eta bere lurra modu kolektiboan erosteko ibilbideari ekin dio Biolurrek, "lurra espekulaziotik zein artifizializaziotik babesteko asmoz, eta lehen sektorea eta gure elikadura sistema indartzeko helburuarekin". Urola ibaiaren meandroan dago kokatuta Amillubi baserria, Zestoako Iraeta auzoan. Lur horiek nekazaritzarako "oso aberatsak" direla adierazi dute egitasmoaren sustatzaileek, eta esku artean dutela "ondare hori kalitatezko elikagaiak sortzeko babesteko aukera". ■



**Gure herriko berri
lau haizetara!**

GUKA